

# Jarduerak 10

## UNITATEA ULERTU DUZUN EGIAZTATZEKO TEST BIZKORRA

1. Zein da Rossiniaren opera musikaren bereizgarri nagusia?
  - a) Obertura aspergarriak.
  - b) Apaindurarik gabeko musika.
  - c) Birtuosismoaren erabilera.
2. Richard Wagnerren gaiak:
  - a) Gai historikoak dira.
  - b) Gai mitologikoak dira.
  - c) Gai frantsesak dira.
3. Zein da operako musika erromantikorearen ezaugarri nagusia?
  - a) Koruaren presentzia urria.
  - b) Doinuarekiko interes handirik eza.
  - c) Ahotsaren birtuosismo handia.
4. Hautetako zein ezaugarri dagokio genero txikiari?
  - a) Ez du nortasun hispaniar nabaria.
  - b) Ekitaldi bakarra du.
  - c) Gai historikoak lantzen ditu, ez gaur egungoak.
5. Obrak eta egileak:
  - a) *La Gran Via* obraren egilea Breton da.
  - b) *La verbena de la Paloma* obraren egilea Chueca da.
  - c) *La revoltosa* obraren egilea Chapi da.
6. Zer ezaugarri dagokio operari?
  - a) Ez zuen garrantzi handirik izan Nazionalismoan.
  - b) Doinu eta gai propioak erabiltzen ditu.
  - c) Italiaraz idazten da.
7. Zer buruz dihardu *verismoak*?
  - a) Gai fantastikoei buruz.
  - b) Bizitza errealez.
  - c) Pertsona nobleez.
8. Aukeratu Schuberten *liedei* dagokien ezaugarri bat:
  - a) Frantsesez kantatzen dira.
  - b) Ahotsaren bidez irudi poetikoak adierazten dituzte.
  - c) Ez dute interesik, harmoniari dagokionez.
9. Zein ezaugarri dagokio zartzuelari?
  - a) Abesbatzarik ez erabiltzea.
  - b) Ariak erabiltzea.
  - c) Erromantzak eta koplak erabiltzea.
10. Obrak eta egileak:
  - a) *La Traviata* obraren egilea Rossini da.
  - b) *Rhineko urrea* obraren egilea Verdi da.
  - d) *Norma* obraren egilea Bellini da.

- ① Zer desberdintasun dago Schuberten lieden eta Schumannen lieden artean?
- ② Zer alde dago Wagnerren leitmotivaren eta Berliozen ideia finkoaren artean?
- ③ Nola laburtuko zenituzke Verdik XIX. mendeko operari egindako ekarpenak?
- ④ Ba al dakizu zer desberdintasun dagoen zartzuela handiaren eta genero txikiaren artean?
- ⑤ Ba al dakizu zein diren zartzuela handiko eta genero txikiko egile nagusiak?

### Irakurgai iruzkindua

«Verdik eta Wagnerrek ezaugarri komun bakarra dute, elkarren garaikideak izatea. Biak dira borrokalaria, baina Wagner bere garaia kontra borrokatu zen, eta Verdi, berriz, italiar opera gorestearen alde, haren historia onartuta... haren tradizioaren eta bilakaera naturalaren ezagutza perfektua izanik... Ez zen iraultzailea izan; Rossiniaren, Belliniaren eta, bereziki, Donizettiaren lanai gaina hartu zien, besterik gabe».

Alfred Einstein: *Musika, garai erromantikoan*

Aipatu Verdiren ezaugarriak, testu honen arabera.

Zergatik dio Wagner borrokalaria izan zela? Bila ezazu, entziklopediaren batean, Wagnerri zer gertatu zitzaion.

Zergatik dio testuaren egileak Verdi ez zela iraultzailea izan?